## Zk-7412

307/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, martxoaren 19ko 761/2001 Erregelamenduan (EB), ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitarioari (EMAS) buruzkoan, jasota dauden funtzioak betetzeko erakunde eskuduna izendatzeko dena.

3/1998 Legeak, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak, ingurumena zaindu eta kudeatzeko baliabideen artean ekoauditoriak begiesten ditu, jarduera ekonomikoen eta ingurumen-eskakizunak betetzearen ingurumen-kudeaketarako sistema borondatez, sistematikoki, objektiboki eta aldizka ebaluatzeko prozesu gisa.

Halaber, Lege horrek xedatzen du Herri Administrazioek enpresetako ingurumen-kudeaketa ebaluatzeko ingurumen auditoriak egitea sustatuko dutela, eta auditoria horien emaitzak herritarrari jakinaraziko zaizkiola ingurumenaren gaineko Deklarazio baten bidez; hala xedatuta baitago aplikatu beharreko Erregelamendu Komunitarioan.

Alde horretatik, Europar Batasunak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 761/2001 Erregelamendua (EB) onartu zuen. Erregelamendu horren bidez aukera ematen zaie erakundeei (erakundetzat joko dira «konpainiak, sozietateak, firmak, enpresak, agintariak edo erakundeak, edota horien zati edo konbinaketa, nortasun juridikoa izan ala ez, publikoak nahiz pribatuak, betiere bakoitzak bere funtzioak eta administrazioa dituztenak) borondatez, ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitario bati atxikitzeko. Erregelamendu hau erakundeek duten tresnarik garrantzitsuenetakoa da euren ingurumen-jardueren emaitzak kontrolatzeko eta ebaluatzeko sistemak diseinatzeko, ingurumenaren babesaren esparruko erantzukizun banatua sustatuz.

Sistema sinesgarria eta gardena da. Izan ere, kreditatutako ingurumen egiaztatzaile batek sistema horren aplikazio bakoitza bere aldetik egiaztatzen du; horrek, antolamenduaren kudeaketan ingurumen-balioak integratuko dituen merkatu-bideak erabiltzea ekarriko du.

Erregelamendu komunitarioak, balioetsitako ingurumen deklarazioak aurkeztu behar zaizkien erakunde eskudunak izendatzeko agintzen du, eta erakunde horiek izango dira delako zentroak sisteman sartu ala ez erabakiko dutenak, martxoaren 19ko 761/2001 Erregelamenduak eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.

Ondorioz, eta aipatutako Erregelamendua betez, Dekretu honek Euskal Autonomia Erkidegoan Erregelamenduak ezarritako funtzioak beteko dituen erakunde eskuduna izendatuko du.

## N°-7412

DECRETO 307/2002, de 17 de diciembre, por el que se designa el organismo competente para efectuar las funciones contempladas en el Reglamento (CE) 761/2001, de 19 de marzo, relativo al sistema comunitario de gestión y auditorias medioambientales (EMAS).

La Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco contempla, entre los instrumentos de tutela y gestión ambiental, las ecoauditorías como procesos de evaluación voluntaria, sistemática, objetiva y periódica del sistema de gestión ambiental de las actividades económicas, así como del cumplimiento de requerimientos ambientales.

Dispone, asimismo, dicha Ley, que las Administraciones Públicas fomentarán la realización de las auditorias ambientales como sistemas de evaluación de la gestión ambiental de empresas y la información al público de sus resultados a través de la declaración ambiental, conforme dispone el Reglamento Comunitario de aplicación.

En este sentido, la Unión Europea adoptó el 19 de marzo de 2001 el Reglamento (CE) n.º 761/2001 del Parlamento Europeo y del Consejo, por el que se permite que las organizaciones (entendiendo por tales a «las compañías, sociedades, firmas, empresas, autoridades o instituciones, o parte o combinación de ellas, tengan o no personalidad jurídica, sean públicas o privadas, que tienen sus propias funciones y administración), se adhieran con carácter voluntario a un sistema comunitario de gestión y auditoría medioambientales. Este Reglamento se configura como una de las principales herramientas de que disponen las organizaciones para diseñar sistemas de control y de evaluación de los resultados de sus actividades medioambientales, promoviendo la responsabilidad compartida en el ámbito de la protección del medio ambiente.

El sistema asume las cualidades de credibilidad y transparencia ya que su aplicación se verifica de forma independiente por un verificador medioambiental acreditado y supone la utilización de mecanismos de mercado integrando las consideraciones ambientales en la gestión de la organización.

El Reglamento comunitario exige la designación de los organismos competentes ante los que deben presentarse las declaraciones medioambientales validadas, siendo estos organismos los que decidirán la inclusión de dichos centros en el sistema tras comprobar que reúnen los requisitos exigidos en el Reglamento 761/2001, de 19 de marzo.

En consecuencia y en cumplimiento del Reglamento citado, el presente Decreto procede a la designación del organismo competente en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco para llevar a cabo las funciones en aquél contempladas.

Adierazitako guztiaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoa entzunda, eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko abenduaren 17an egindako bilkuran aztertu eta gero, honakoa

XEDATU DUT:

***Artikulu Bakarra.***– Euskal Autonomia Erkidegoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren martxoaren 19ko 761/2001 Erregelamenduan ezarritako funtzioak beteko dituen erakunde eskuduna izendatzen da. Erregelamendu horren bidez, erakundeei aukera ematen zaie borondatez, ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako Sistema Komunitario bati, Ingurumen Sailburuordetzari, atxikitzeko.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Ahalmena ematen zaio Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuari, bere eskumenen esparruan, behar diren xedapenak emateko, ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitarioari (EMAS) atxikitako erakundeen erregistroaren funtzionamendua, eta Dekretu honen bidez egin den izendapenak dakartzan gainerako funtzioak arautzeko.

***Bigarrena.***– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hartuko du indarra .

Vitoria-Gasteizen, 2002ko abenduaren 17an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu eta
Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

En virtud de todo lo expuesto, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, y a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su Sesión de día 17 de diciembre de 2002,

DISPONGO:

***Artículo único***.– Se designa como organismo competente en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para efectuar las funciones contempladas en el Reglamento (CE) 761/2001 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 19 de marzo, por el que se permite que las organizaciones se adhieran con carácter voluntario a un sistema comunitario de gestión y auditoría medioambientales, a la Viceconsejería de Medio Ambiente.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se faculta al Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente para, en el ámbito de sus competencias, dictar las disposiciones precisas para regular el funcionamiento del registro de organizaciones adheridas al sistema comunitario de gestión y auditoría medioambientales (EMAS) y las demás funciones que conlleva la designación realizada en virtud del presente Decreto .

***Segunda.***– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 2002,

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## Zk-7413

EBAZPENA, 2002ko abenduaren 13koa, Ingurumen sailburuordearena, Zegamako udalerrian, Zegamako udalak sustatzen duen Bihurgune zuzenketa GI-2637 Errepidean eta Oria ibaiaren uholdeen aurkako defentsa eta bideratzeko proiektua, eta proiektuak berak ingurumenean duen eragina ebaluatzeko azterlana jendaurrean jartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikuluak ezarritakoari jarraituz, Euskal Autonomia Er-

## N°-7413

RESOLUCIÓN de 13 de diciembre de 2002, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se acuerda someter a información pública el Proyecto y Estudio de impacto ambiental de las obras de rectificación de curva en la carretera GI-2637 y de defensa contra inundaciones y encauzamiento del río Oria en Intxausti, promovida por el Ayuntamiento de Zegama. en el término municipal de Zegama.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 41 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, deben someterse